



abagune 'egokiera, une egokia, parada'	«...aprobetxatu beharra zegoen abagune hura...»	(99)
abaila batean 'ahalean, ziztu bizian'	«Biak jeep batera igoarazi zituzten, bultzaka, eta aldapa aldera abiatu ziren abaila batean .»	(73)
abioa eman 'martxa, bizitasuna eman'	«Idoiak abioa eman zion nire bizitzari, zorabioa sentiarazterainokoa batzuetan...»	(134)
ahur 'esku barrua'	«Idoiak atera ninduen hartatik, eta haizemaile baten ahurra bezala zabaldu zidan bizitza. Idoia zirimolatsu samarra zen, eta alde asko zituen...»	(139)
ahutz 'aho-eztarri gunea'	«...otsoak sei antxumeak jaten zituen hartan, neure burua piztiaren ahutzetan barna ikusten bainuen...»	(7)
aienarazi 'uxatu, alde eginarazi'	«...ziur nengoen Marro gauza zela norbait aienarazteko , gehiago ez agertzeko moduan...»	(17)
aienatu 'uxatu, aldenarazi'	«Komunista, baina, pauso geldoan joan-etorri batzuk egin ondoren, atakara itzuli zen, eta bidezidorrean barrena aienatu .»	(53)
aieru 'susmoa, inpresioa'	«Usteak eta aieruak besterik ez ziren, ordea.»	(103)
aintza 'ospea, gloria'	«...Ediporen mitoan bezalaxe, garaipena eta aintza izan baitzituen, hain zuzen, galbide.»	(36)
aise 'erraz'	«...belarri fina baitzuen, azkar jarri zen ahoskerarik aldrebesenak ere ulertzeraz, eta, azkenean, jende guztiarekin aise mintzatzeko gauza zen.»	(32)
aitaren batean 'atoan, berehala, segituan'	«Erreketek Nafarroatik sartu zirenean, aitaren batean iritsi ziren gure auzora.»	(54)
aitzakia 'estakurua, desenkusa'	«Aldiak izaten zituen, aldartearen arabera; bufoiren bat behar zuenean, bere miztoko pozoi guztia hari sartzeko, aski zuen edozein aitzakia .»	(19)
aiurri 'izaera, nortasuna'	«Hasieran, haren aiurri atseginak erakarri ninduen; lagun aparta izan zitekeela iruditu zitzaidan.»	(153)
alaena 'halakoa (indargarria)'	«—Kabroi alaena! —egin nion garrasi petrikiloari indar guztiekin, eta kordea galdu nuen.»	(15)
aldarte 'umorea, jarrera'	«...edozein txikikeriagatik hartzen zuen ume bat begitan, eta nabarmen uzten zuen besteen aurrean. Aldiak izaten zituen, aldartearen arabera...»	(19)
alderotuta 'alde batera okerturik, oreka galduta'	«Penagarria da, hala ere, kaira sartzten den itsasontzi hori zulaturik eta alderoturik datorrela ikustea, hondora joateko zorian.»	(212)
alderrai ibili 'jitoan, noraezean, nora gabe'	«Lasaiune labur haietako batean, hondoa jota alderrai nenbilela , apalera joan, iragaitzaz liburu bat hartu (...) eta Esoporen alegia bat irakurri nuen...»	(44)
aldiak izan 'aldikadak eduki, jarrera aldaketa	«...edozein txikikeriagatik hartzen zuen ume bat begitan, eta nabarmen uzten zuen besteen aurrean. Aldiak izaten zituen, aldartearen arabera...»	(19)
alegiatzko 'litekeena, posiblea'	«...ikusitako dut geroztik, saminez ikusi ere, nire zuzentasun alegiatzko hura masta erdi hautsia besterik ez zela.»	(48)
alta 'hala ere, haatik'	«...oroimenak erabakiko duela zer gogoratu eta zer ez. Alta , ez dit askorik axola...»	(78)
amiñi 'apurtxo bat, pitin bat'	«...ez du galdu orduan eragin zidan zirrara garbiaren amiñirik ere. Amiñirik ere ez, gertatuak gertatu.»	(25)
anartean 'orduan, bitartean'	«Marrok anartean hogeita bizpahiru urte besterik ez zituen izango...»	(9)
arbeltx 'ikatz mota, beltz-beltza' (azabache)	«Aurpegia hartu zidan bi eskuen artean, begietara peto begiratu, bere arbeltx -distira harekin, eta esan zidan...»	(35)
arbeltz 'ikatz mota, beltz-beltza' (azabache)	«Adelak begietara zuzendu zizkidan bereak, arbeltz -txinparta haiekin, ni barrutik urtzera...»	(28)
arrago 'metalak urtzeko ontzia'	«Alkimiaren arragoan egiten den aldakuntzarik behinena da beruna urre bihurtzea, hots, zama arintasun, makala bizkor, itzala argitasun.»	(217)



arranpalo 'begiak zabal-zabalik, harrituta'	«"Zer?" zabaldu zituen begiak, arranpalo . Nire gorritasuna erabat nabaria zen; irakiten neuzkan masailak.»	(141)
arroila 'ubidea, ibaiak eginiko	«Azpian harrapatuko ote gintuzten beldur, Marisari bultzatu, eta biok arroilara erori ginen.»	(79)
asana 'postura, jarrera'	«Ondoren, Eguzkiari Agurra izeneko mugimenduak eta gero hasiberrientzako asana edo gorputz-jarrera batzuk egiten nituen logelan...»	(67)
ataka 'pasabide estua, bitartea'	«Komunista, baina, pauso geldoan joan-etorri batzuk egin ondoren, atakara itzuli zen, eta bidezidorrean barrena aienatu.»	(53)
ausazko 'aurrez igarri ezina, inprebisiblea'	«Idoia txepetxaren hegaldia baino ausazkoagoa zela pentsatu nuen, noiznahi ezustean harrapatzen ninduela.»	(144)
aztarren 'arrastoa, aztarna'	«...frankistek errepublika suntsitu zutelarik, ez zen geratu alderdi haren aztarrenik ere.»	(39)
aztoratu 'kezkatu, arduratu, larritu'	«Ahoa estali nion, ama gehiago aztora ez zezan, eta gelara eraman nuen, baina atean zurrun gelditu nintzen...»	(137)
bafada 'putza, aire kolpea'	«Nire amarentzat ere, bizitzen ari zen bigarren nerabezaro hartan, aire berri bafada izan zen Idoia.»	(135)
bairatu 'konbentzitu, bai esatera ekarri'	«...txikitan hanka konpondu zidanetik, gure etxean adiskide handi bihurtua zen, eta horrek bairatu zuen seguru asko.»	(190)
banuenez 'horixe nuela!'	«...banuen eskarmenturik lehendik, banuenez , haren ukendu eta igurtziekin.»	(191)
barne-bulko 'sentimenduen bultzada, bulkada'	«...gauza bat dela ideologia, bakoitzak hartu nahi dituen jarrerak, eta beste bat barne-bulkoak , ohartuki edo gabe nola jokatu agintzen digutenak.»	(203)
barrekara 'barre egiteko pronto dagoena'	«Irribarre egiten zuen, eta itxura barrekara zeukan...»	(97)
begitan hartu 'mania hartu, txarto hartu'	«...edozein txikikeriagatik hartzten zuen ume bat begitan , eta nabarmen uzten zuen besteen aurrean. Aldiak izaten zituen, aldaratearen arabera...»	(19)
beharrean 'zorian, puntuan'	«...bidean harrapatzen zituen etxe guztietako ateak, auzo guztia esnatu beharrean .»	(99)
behazun 'gibelaren isurkari mingotsa'	«Dastatu zuen, halaber, behazuna , ezinegona, inolako pertsonaiatan kabitzen den pertsona hori.»	(102)
bekoz beko 'aurrez aurre'	«Atea zabaldu, eta biak topatu nituen bekoz beko .»	(183)
belusezko 'ile leunekoa'	«Azkena murgildu zen katutxoak arrasto zuri bat zeukan buru beltz belusezkoan , ilargi erdiaren antzekoa.»	(90)
bera 'biguna'	«Nire buru bera samarrak artean Adelaren hitzak erabat ulertzen ez bazituen ere...»	(61)
bere baitaraturik 'konzentraturik'	«Idoiak pintzel batzuk eta oihal bat (...) hartzten zituen, eta pintatzen hasten zen, erabat bere baitaraturik .»	(132)
bermatu 'finkatu, tinkatu, segurtatu'	«...ganbaratxora igotzeko xedez oinak bermatu rik neuzkan eskailera-maila birrindu egin zuen...»	(8)
berriketan 'berba eta berba, hitz eta pitz'	«Hainbeste denbora aritu ginen berriketan egongelan, non berandu egin baitzitzaigun.»	(98)
betiereko 'eterno'	«Nik ez dakit aldizkako egoerak izatea irrikatu behar dugun, berez baitira egoerak orain zorientsuak, orain mingarriak, betiereko kondena bat bezala.»	(65)
bezain 'halakoak, iduri'	«Entzutetsuak ziren Marroren azazkalak, ez oso luzeak, baina bai gogorrek eta zorrotzak, erpeak bezain . Eta beltzak.»	(9)
bidutzi 'munstroa, izaki itsusia'	«...berekioa, haurrei hitz gozo bat esateko ezgauza... halako bidutzi bat emakume iraultzaile batekin harremanetan, Adelarekin uztartuta.»	(43)
bihozgabe 'insensiblea, krudela'	«Ez nintzen gehiago irten haiek; eskola utzi zaharra ez zuten, eta Adelaren lepotik barreka ari ziren bihozgabe alanak...»	(70)



bizarra eginda 'bizarra moztuta, afeitatuta'	«Ileluze potrodun eta ero samar hura, orain ile ondo moztu eta orraztuarekin ageri zen, bizarra eginda , eta PSOEn oso aurrera zebilen.»	(178)
bizikizun 'bizitza pasartea'	«Idoiarekin isiltasuna partekatzea, hain txutxumutxuzale izanik bera, azkenean bion arteko bizikizun zoragarri bihurtu genuen...»	(170)
borborka 'pil-pilean, erio handian'	«...une saminak eta une pozgarriak, betiere bizi-indarrez eta itxaropenez gainezka, borborka ; zerbait egiteko gogo hura...»	(148)
burgoi 'adoretuta, hazkor'	«Gizakiak, ordea, ez; hura burgoi geratzen da, eta harro astintzen du bere balentria.»	(63)
burtzoratu 'zorabiatu, burua galdu'	«...sofara joaten nintzen zuzenean, erdi burtzoratuta , patxaran ttanta bat hartzera, ama eta Idoia mahaia jasotzen eta ontziak garbitzen ari ziren bitartean.»	(137)
burua jan 'limurtu, konbentzitu'	«...amari ere segituan jaten zion burua Albertok, eta horrek neure onetik ateratzen ninduen.»	(186)
burusi 'manta'	«...ez nuen nahi inork estalkia kentzerik ohantze moduko hari, burusiz estalia bainekuan, oroimenean ondo babesturik.»	(140)
dasta 'zaporea'	«...eztarrian gora igotzen zitzaidan zorientasunaren dasta ezitia, eta zeruan banengo bezala sentitzen nintzen...»	(31)
diosala egin 'agurtu'	«Neska hark diosala egiteko musu eman zidanean, ez dakit zergatik, hozkia sentitu nuen.»	(129)
dizdizka 'diz-diz egiten, distiratzen'	«Ikusi orduko ekarri zidan gogora beste bat, hautsez estalia, ganbaratxoko kutxan dizdizka .»	(29)
doilor 'dongea, gaiztoa, bilaua'	«...zezen baten antzera eskailerak eskailerak igo, atea bota, eta eraso egin tipo gorrotagarri eta doilor hari, Julio zitalari...»	(43)
elkargainka 'bata bestearen atzetik, tropoiloan'	«Ondorengo gertaerak, uholde baten antzera, elkargainka etorri ziren.»	(209)
eman 'itxura edo antza izan, iruditu'	«Zur bereko ezpalak ematen duzue.»	(82)
errainu 'distira, argi isla'	«...baina gertaera hura beste zerbait gogorragoaren errainu apal bat besterik ez zen...»	(39)
errebeskada 'kontrara emandako kolpea'	«...burua zakar jasoarazi, eta bestearekin masailekoa eman zidan, eta bueltakoan errebeskada beste masailean.»	(22)
erresumin 'oinazezko sentsazioa, mina'	«Halaxe itzali zen gu bion arteko sua, erresuminik gabe, eten tragikorik gabe, itzaliz doan argizari bat bezala.»	(94)
erretolika 'azalpen luze aspegarria,	«...ebanjelioaren irakaspen nagusia behartsuei laguntzea dela, eta erretolika hori guztia.»	(184)
esamesa 'zabaltzen den gezurra edo esana'	«...eta bestetik gure auzoko esamesetatik urruntzeko, eta, batik bat Marro gehiago ez ikusteko...»	(211)
esan bazuen, esan zuen 'hara, zertako esango ote zuen!'	« Esan bazuen, esan zuen . Urte askotarako itsatsi zidan izengoitia: Herrenko.»	(20)
eskarmentu 'esperientzia'	«...banuen eskarmenturik lehendik, banuenez, haren ukendu eta igurtziekin.»	(191)
eskertze aldera 'eskertzeko edo, eskertzearren'	«...poltsa bat prestaturik zeukan amak, maistrari eraman niezaion, eskaintzen zidan laguntza nolabait eskertze aldera .»	(42)
esku-argia 'linterna'	«Barrura sartuta, leihatila itxi nuen, neurekin neraman esku-argia piztu, gainaldean eskua ipini...»	(49)
eskuarki 'normalean, jeneralean'	«...maitemintzeari buruz eskuarki hedaturik zegoen ikuspegiarekin alderatuta behintzat...»	(153)
etxekone 'bi aldeko baserrian, alboko bizilaguna'	«...eta hara non aurreratzen gaituen Joxe Marik, etxekonekoak , bizikletan.»	(11)
etxeorde 'txabola'	« Etxeorde hura Joxe Mariren etxeordetik gertu zegoen, baratze batzuen ertzeko etxeorde-ilara batean; baratze zuesna gordetzeko erabiltzen zituzten...»	(16)



ez bat eta ez bi 'bat-batean, ustekabea, ezustean	«—Nolatan ez zenuen ekainean gaintu proba? —galdetu zidan, ez bat eta ez bi .»	(28)
ez bat eta ez bi 'erabakitsu, kementsu'	«...ika-mikak (...) gazte luzanga sesiozale batekin, segituan bere onetik atera eta ez bat eta ez bi irainka hasten baitzitzaien, gogor ekinez (...)»	(57)
ezin konta ahala 'ugari, infinitua'	«...hura ikusi, eta ezin konta ahala ahots hasi zitzaizkidan barrutik irten beharrean, ez eztarrian barna, baizik eta zuzenean bihotzetik...»	(27)
ezpal 'egur zatia / jatorri berekoa'	«Zur bereko ezpalak ematen duzue.»	(82)
galbide 'hondamena, akabua'	«...Ediporen mitoan bezalaxe, garaipena eta aintza izan baitzituen, hain zuzen, galbide .»	(36)
galdu ez galdu egon 'galtzeko zorian, arriskuan'	«...bestetik, ordea, hain hartu ninduen saminak, non konortea galdu ez galdu bainengoan, eskailetertan behera itzulipurdika erori ez erori.»	(43)
galtzarbe 'besapea'	«Pixka bat goratu egin zion besoa, berea galtzarbe azpitik sartu...»	(13)
gatibu 'atxilotua, preso'	«...drogak bihurtu ziren askatasun-seinale, eta, aldi berean, gatibu tristen ikur.»	(92)
gauza izan 'gai izan, kapaz izan'	«...belarri fina baitzuen, azkar jarri zen ahoskerarik aldrebesenak ere ulertzera, eta, azkenean, jende guztiarekin aise mintzatzeko gauza zen .»	(32)
gerturik 'prest'	«...alde batetik burdinaren hotza (...) eta bestetik benetako gudari izatearen suhartasuna, odola emateko gerturik egotearen mistika hordigarria.»	(163)
girgilu 'katedun burdinazko uztagailua'	«...nik neuk ikusi nian nola fusilatu zuten gure aita, hura ikustera behartu ninditean, hanka-hutsik eta girgiluekin ...»	(180)
gizatiar 'humanoa, pertsona'	« Gizatiarra izan zen nire maistra, gizatiarregia.»	(169)
grina 'pasioa, jorana, irrika bizia'	«...berak ezin du barneko su hori itzali, eta ideiak azkenean grinaren mende erortzen dira. Halaxe gertatzen da, inoiz edo behin.»	(75)
hades 'deabruaren erresuma'	«...ikusten nuen kemen hark Olinporaino igo nintzakeela, baina baita Hadeseko zulorik beltzenera amildu ere...»	(64)
halaber 'era berean, baita, orobat'	«Dastatu zuen, halaber , behazuna, ezinegona, inolako pertsonaiatan kabitzen den pertsona hori.»	(102)
handik hara 'handik gora, haren ondoren'	«...estropada haien oroitzapena, gertaera tragiko bat dela medio; handik hara , bertan behera geratu ziren estropadak.»	(11)
hanka-hutsik 'ortozik'	«...nik neuk ikusi nian nola fusilatu zuten gure aita, hura ikustera behartu ninditean, hanka-hutsik eta girgiluekin...»	(180)
harekiko egon 'gustatuta egon'	«Harro nago Idoia maitatu izanaz; oraindik ere harekiko nagoela esango nuke, barruan sarturik dudala.»	(187)
harramazka 'atzaparkada, erpakada'	«...batek baino gehiagok probatuak zituen Marroren harramazkak , bai eta jaso ere aurpegian, bizi guztirako, deabruaren orbaina.»	(9)
hausnarrean 'gogoetatzen, pentsatzen'	«...inoiz baino isilago zebilen Idoia, begirada galduarekin, zerbaiten hausnarrean balego bezala.»	(198)
haztamu 'ukimena, zentzua'	«Adelak aurpegi serioa jarri zuen; haren haztamu leun beltzaranak zorrotzu egin ziren, ilundu.»	(29)
haztatu 'eskuaz ukitu, apur bat sakatzu'	«—Hori ez duk ezer, motel —esan zion Joxe Mariri, sorbalda haztatuz .»	(13)
herratsu 'gorrotozkoa, amorrutzkoa'	«...eta izateko modu hark berriro egin ninduen benetan, nik bai baineukan mendekuzale eta herratsu izateko joerarik.»	(152)
hezuera 'hezurretako gaixotasuna'	«Emazteak hezuera zaukak, gero eta okerragoa.»	(212)
hil-hurren 'hil zorian, hiltzeko puntuan'	«Hermann Broch-en <i>Virgilioren heriotza</i> liburuan, poeta handiak, hil-hurren , <i>Eneida</i> errearazi nahi du...»	(161)



histasun 'tristura, goibeltasuna'	«...gorputza airean geratzen zitzaidala ere iruditu zitzaidan (...) erortzearen itsumenak eragin ohi duen histasun horretan bilduta...»	(7)
histeriak joa 'bere onetik irtenda'	«Idoia ere azterketetan zebilen, histeriak joa , eta pixka batean egoteko besterik ez ginen elkartzten: oheratu, eta elkarri animoak emateko.»	(175)
hondoa jota 'lur jota, deprimituta'	«Lasaiune labur haietako batean, hondoa jota alderrai nenbilela, apalera joan, iragaitzaz liburu bat hartu (...) eta Esoporen alegia bat irakurri nuen...»	(44)
hordigarri 'mozkortzen duena'	«...alde batetik burdinaren hotza (...) eta bestetik benetako gudari izatearen suhartasuna, odola emateko gerturik egotearen mistika hordigarria .»	(163)
hozkia eman 'hotzikara bezalako sentitu'	«Halako hozkia eman zidan non betiko iltzaturik geratu baitzitzaidan <i>petrikilo</i> hitza garezurrean, ileak tente ipini zizkidan <i>krak</i> lasgarri harekin uztaturik.»	(13)
ifrentzu 'beste aldea (aurkia eta ifrentzua)'	«Ahots bikoia (edo hirukoia) da gizakia, eta begietan itsatsirik darama bere historiaren ifrentzua .»	(36)
ika-mika 'eztabaida'	«Batzarretan, berebiziko ika-mikak izaten zituzten abertzaleetako batekin, gazte luzanga sesiozale batekin...»	(57)
imintzio huts 'keinua baino ez'	«...haragizko gizakien itxura ez-perfektua hartzen ez badu, imintzio huts bihurtzen da, morfina huts.»	(169)
inoiz edo behin 'lantzean behin, noizik behin'	«...berak ezin du barneko su hori itzali, eta ideiak azkenean grinaren mende erortzen dira. Halaxe gertatzen da, inoiz edo behin .»	(75)
inondik ere 'ziur, zalantza barik, duda gabe'	« Inondik ere , konortea galdu nuen, ezen gogoan dut egongelako sofan etzanik esnatu nintzela hurrena, eta ama nuela alboan eserita, lokiak igurtzika...»	(10)
iragaitzaz 'helburu izan gabe, abasberuan'	«Lasaiune labur haietako batean, hondoa jota alderrai nenbilela, apalera joan, iragaitzaz liburu bat hartu (...) eta Esoporen alegia bat irakurri nuen...»	(44)
iraulkatu 'irauli, itzulikatu'	«...Adela sartzen eta salmahaira hurbiltzen ikusi nuelarik, bihotza iraulkatu zitzaidan.»	(141)
iritzi 'dela pentsatu'	«Ez zen batere ondo konpontzen aitaordearekin; harroputza irizten zion.»	(152)
irrikatu 'biziki desiratu, gogo handiz'	«Nik ez dakit aldizkako egoerak izatea irrikatu behar dugun, berez baitira egoerak orain zorientsuak, orain mingarriak, betiereko kondena bat bezala.»	(65)
itxitura 'zarratua, leku itxia, gordelekua'	«Gaztarako lehen adiskideak izan nituen haiek, ez luzaroko, baina, gutxienez, nengoen itxituratik irteerako balio izan zidaten.»	(50)
itzulipurdika 'txiribueltaka'	«Daten zehaztasuna barregarria da (...) hedatuz eta estutuz, txerpolari baten antzera itzulipurdika dabilen bitartean...»	(212)
itzuri egin 'saihestu, ekidin'	«...ea egia ote zen pistolarena, baina errepublikarrak beti itzuri egiten zion gaiari...»	(53)
izarniatu 'distiratu, argitasunez bete'	«...ilunpe hartan izarrak sortu zain, hala ematen baitzuen, doinu hark sabaia izarniatu behar zuela.»	(51)
izu-laborri 'beldur ikaragarria, itzela'	«...kalean zehar arrastaka jarraitzeko, etxe aldera, ustez, izu-laborriarekin eta zangarra suzko aizto moduko zerbaitek ziztaturik...»	(9)
jaidura 'joera bizia, debozioa'	«Adelaren baitan beste alde bat, bakerik ematen ez ziona, nahiz eta hurrekin zegoelarik eztitasun amatiar edo jolaserako jaidura bihurtzen zuen.»	(88)
jazarri 'oldartu, matxinatu'	«Trafikatzaileen kontrako ekintzak hasiak ziren, gazteak drogara eraman eta jazartzeko ahalmena jaten omen zietelako.»	(215)
jo eta ma geratu 'zur eta lur, sor eta lor, harrituta'	«...PCn zebilela aitortu zidan. Jo eta ma geratu nintzen. PCn? Ez nuen ulertzen ezer.»	(60)
kalapita 'sesioa, liskarra'	«...auzoko tabernan kalapita sutsuak izaten zituzten politikaren gainean...»	(52)
kanpaitsu 'deigarria	«Adela, besterik gabe; hala deitzea nahi izaten zuen, eta ez don Juliok bezala, don kanpaitsuarekin .»	(18)
katartiko 'katarsi eragilea,	«...neure burua piztiaren ahutzetan barna ikusten bainuen, nahiz eta azken unean zazpigarrena izaten nintzen, halako gozamen katartiko batean salbaturik.»	(7)



katu 'armaren gailua'	«—Hator, potrorrik baldin baduk –erantzun nion, hatza pistolaren katuan prest.»	(193)
koitadu 'gizajoa, gaixoa'	«Nor nintzen ni? Kixote ala Santxo? Ala Sansón Carrasco batxilerra? Ala istorioan izenik ere ez duen malapartatu edo koitaduren bat?»	(51)
kordea galdu 'konortea galdu'	«—Kabroi alaena! –egin nion garrasi petrikiloari indar guztiekin, eta kordea galdu nuen.»	(15)
korridore 'karrejua, pasilloa'	«...jarrera xelegre haietan harrapatzen ninduen, galtzontzilo hutsean, eta barre-karkaraka aldentzen zen korridorean barna.»	(67)
kuxin 'buruko-antzekoa (cojín)'	«Afarirako, sofán ipini genuen, kuxin batzuekin, erdi etzanik, gurekin batera afal zezan.»	(195)
lakio 'zepoa, animaliak harrapatzekoa'	«Ez zegoen hara joaterik, oina lakioan ipintzea zen-eta.»	(150)
lastaira 'koltxoia'	«—Jauzi egiteko gogoia ematen du, lastaira baten gainera bezala, ezta? –esan zidan Idoiak, begirada sorgor.»	(126)
lauso 'lainotua, nahasia, difuminatua'	«...neskatoari aitaren oroitzapen lauso bat besterik ez zitzaion geratu.»	(40)
lazgarri 'beldurgarria, erdiragarria'	«Halako hozkia eman zidan non betiko iltzaturik geratu baitzitzaidan <i>petrikilo</i> hitza garezurrean, ileak tente ipini zizkidan <i>krak</i> lazgarri harekin uztarturik.»	(13)
leiar 'lentea, kristala'	«Primatiko batzuk ere topatu nituen, leiarrek apurturik, eta kate-erloju bat ere bai, kristalik eta orratzik gabea...»	(17)
lertxun 'orrikara (zuhaitz mota: "alamo")'	«...bihurgune itxi batek lotzen zuen bide hura beste bide zelai batekin, zeinak albo batean espaloia baitzeukan, lertxun -lerro luze eta guzti...»	(11)
likatsu 'lirdingatsua, nazkagarria'	«Hilabete haietan, begitan hartu nuen morroi hura; likatsua iruditu iruditzen zitzaidan, melenga, ia-ia lizuna, ez sexuari zegokionez zuzen-zuzenean...»	(108)
lizun 'zikina, lohia, sexurako jarrera irtena'	«Hilabete haietan, begitan hartu nuen morroi hura; likatsua iruditu iruditzen zitzaidan, melenga, ia-ia lizuna , ez sexuari zegokionez zuzen-zuzenean...»	(108)
loezinak joa 'imsomnioak jota'	«Bizitzan lehen aldiz, loezinak joa nenbilen, eta buru barruan irudi obsesiboak pilatzen zitzaizkidan.»	(223)
loki 'buruaren aldea, belarri aurrekoa'	«Inondik ere, konortea galdu nuen, ezen gogoan dut egongelako sofán etzanik esnatu nintzela hurrena, eta ama nuela alboan eserita, lokiak igurtzika...»	(10)
lotsagaldu 'irtena, lotsarik sentitzen ez	«...Idoiaz neukan irudia, hain askea, batzuetan lotsagaldua ere ematerainokoa, ez zetorren bat jokabide jeloskor harekin, inoiz ez bainion maiterre-zantzurik nabaritu.»	(176)
mainatu 'maitasunez zaindua, mimatua'	«...ni ikasle mainatu bat baizik ez nintzela azken batean, eta ez zegoela besterik...»	(44)
maiterre 'maitasunagatik urduri'	«...Idoiaz neukan irudia, hain askea, batzuetan lotsagaldua ere ematerainokoa, ez zetorren bat jokabide jeloskor harekin, inoiz ez bainion maiterre -zantzurik nabaritu.»	(176)
makatz 'nahasi gabea, berezkoa'	«Haren jarrera argi eta garbiak min ematen zidan, bai, baina ezti makatzaren antzekoa zitzaidan...»	(200)
malapartatu 'gizajoa, baztertua'	«Nor nintzen ni? Kixote ala Santxo? Ala Sansón Carrasco batxilerra? Ala istorioan izenik ere ez duen malapartatu edo koitaduren bat?»	(51)
mandatu 'agindua'	«Amak, orduan, mandatuak egitera bialtzen ninduen...»	(42)
mandio 'lastategia, belarrak gordetzeko	«Aita eta beste gaztetxo batzuk mandio bateko belar pilaren gainera igota zeuden...»	(53)
marrantatsu 'eztul ahotsa, erlastua'	«—Hik amaren titia ere ez duk jasotzen –bota zion Marrok bere bazterretik, ahots marrantatsuz .»	(103)
marruskatu 'gogor igurtzi, arraskatu'	«Goitik behera nentorren, airearen xaflek soina marruskatzen zidatela, zurrunbilo baten begi-zulora erortzen ariko banintz bezala...»	(7)
melenga 'lar gozoa izanik, gogaikarria'	«Hilabete haietan, begitan hartu nuen morroi hura; likatsua iruditzen zitzaidan, melenga , ia-ia lizuna, ez sexuari zegokionez zuzen-zuzenean...»	(108)



men egin 'obeditu, esana edo agindua bete'	«Haiek men egin zioten, pozarren, besteen algara artean, baina ez zuten ezertxo ere topatu.»	(21)
misanthropo 'besteekin harremanik nahi ez duena'	«Egia da inoiz baino bakartiago ibili nintzela, ia misanthropo bihurturik, ez nintzela asteburuetan lagunekin irteten...»	(101)
mistiko 'sinesmenaren menpekoa'	«...ez modu arrazionalisten, nire maistrak budismoa bizi zuen bezala, baizik eta modu mistiko batean, fede bati atxikirik...»	(210)
mistizismo 'kutsu erlijiosoa'	«Hura guztia oso serio eta mistizismo puntu batez hartzen banuen ere, bazuen jolas-eite bat...»	(67)
mizto 'sugeen mihia'	«Aldiak izaten zituen, aldartearen arabera; bufoiren bat behar zuenean, bere miztoko pozoï guztia hari sartzeko, aski zuen edozein aitzakia.»	(19)
mukuru 'bete-beterik, topera'	«Une honetan ere, kamioia hondarrez mukuru daukat, perlesiak jota, eta hustu beharrean nago...»	(78)
nago 'uste dut'	«...benetako arrazoiak Adelak berak ere ez ote zekizkien nago .»	(206)
neure kabutan 'neurekiko, neure kolkorako'	«("Marrok ekarri du lehendik ere zoritxarrik, Ana", egin nuen neure kabutan).»	(225)
neurekiko 'neure kautan'	«...baina jarraituko zuela pentsatzen nuen neurekiko .»	(68)
nik ahal dakit! 'zer dakit, ba!'	«Non zabilta ba orain, Adela? — Nik ahal dakit , Joantxo; nik ahal dakit!»	(113)
nozitu 'sufritu, jasan'	«Baina kontu hartan baziren zenbait alde, Adela hura guztia isilik eta bakarka nozitzera zeramatenak.»	(189)
ñirñir 'distira'	«Izarren ñirñir hotzak zirrara eragin zidan; han goian, isiltasunik isilenean, ametsak txandaren zain zeuden...»	(55)
ogi puska 'on-ona'	«...betiko gizona ikusten zuen, bere baitan bildua, geza samarra, baina ogi puska .»	(107)
ohartuki 'modu kontzientean'	«...gauza bat dela ideologia, bakoitzak hartu nahi dituen jarrerak, eta beste bat barne-bulkoak, ohartuki edo gabe nola jokatu agintzen digutenak.»	(203)
orbain 'zauria, ebakia izandako marka'	«...batek baino gehiagok probatuak zituen Marroren harramazkak, bai eta jaso ere aurpegian, bizi gutzirako, deabruaren orbaina .»	(9)
ordu txikiak 'goizaldekoak, 12:00etatik gora'	«...arratsaldeko bostak aldera bere 2 CVan irteten zen auzotik, eta ordu txikietan itzultzen zen maiz...»	(75)
orobat 'baita, halaber, era berean'	«...koadroa pintatu, gurpil-zorro eta estalki berriak ipini, eta orobat galgak; eta gurpilak ere zuzendu nizkion...»	(42)
orobat 'era berean'	«Konfuzioak dio ezen zuhurtasunez jokatzeko duena ez dela haserretzen gizakiek engainatzen dutenean, eta ez dela orobat tristatzen desleial zaizkionean.»	(107)
oroi-min 'gogorapen sentimendu irmoa'	«Adelak oroi-min handia utzi zuen belaunaldi askotako umeengan...»	(211)
ospa! 'alde!'	«— Alde hemendik, sagu zikina!»	(9)
perlesia 'elbarritasuna'	«Nik neuk ere izan nuen, ustez, Swann-ek jasandako perlesia espiritualaren antzeko zerbait, behin baino gehiagotan.»	(78)
pertxenta 'eder-ederra, ikusgarria, dotorea'	«...haietako asko Adelaz nabarmen gustaturik, gustatzeko moduko emakume pertxenta zen eta...»	(68)
peto 'jator, mazal	«Aurpegia hartu zidan bi eskuen artean, begietara peto begiratu, bere arbeltx-distira harekin, eta esan zidan...»	(35)
piltzar egina 'sats eginda, zisko eginda'	«Orain aurrean neukan, hauskortasuna agerian zuela, piltzar egina .»	(156)
pottoka 'potxola, gustagarria'	«...erroten besoetatik zintzilik jartzen nintzen, bentan afaltzen nuen, irribarre egiten nion Dultzinea pottokari ... mundu hartan bizi nintzen, protagonista...»	(31)



poxi bat 'apurtxo bat, pitin bat'	«...baina kontsolatzeko ahalegin horrek ez dio garratzasun poxi bat bat ere kentzen irentsi beharreko ozpinari.»	(94)
salmahai 'mostradorea'	«...Adela sartzen eta salmahaira hurbiltzen ikusi nuelarik, bihotza iraulkatu zitzaidan.»	(141)
saminez 'modu mingarrian, garratzasunez'	«...ikusi dut geroztik, saminez ikusi ere, nire zuzentasun alegiazko hura masta erdi hautsia besterik ez zela.»	(48)
sastraka 'sasitza'	«Marroren aitona geldirik egon zen, zuhaitzaren kontra bermatuta, nola egoten baita otsoa sastraka artean zain.»	(53)
sisi-basa 'hizkera edo ahoskera ulertezina'	«Marro leihoan egotekotan, entzungo nuen haren arnasaren sisi-basa asmatikoa...»	(193)
sisi-basaka 'zerbait modu ulertezinean ahoskatu'	«—Hi, Ttakun: bizkarzain sartu al haiz? Lepoa askatu, eta barre isila egin zuen, sisi-basaka .»	(121)
sorgor 'geldiarazia bezala'	«—Jauzi egiteko gogoia ematen du, lastaira baten gainera bezala, ezta? —esan zidan Idoiak, begirada sorgor .»	(126)
sorgortasun 'bertigoia, beldurrak gelditurik'	«Erortze lasterraren zirimolak inguraturik, hegan ote nindoan lilura sentitu nuen une batez, giza-gainbehera orok izan ohi duen halako sorgortasun baten baitan...»	(8)
suhartasun 'bizitasuna, kemen itsua'	«...alde batetik burdinaren hotza (...) eta bestetik benetako gudari izatearen suhartasuna , odola emateko gerturik egotearen mistika hordigarria.»	(163)
tarratatu 'zarataz urratu'	«... <i>petrikilo</i> hitza aipatu zuelarik, nire garezurrean berriro krak hura berpiztea, argi ororen zapia tarratatuz , bizia etenez.»	(14)
tortika 'lohitasuna, ugerra'	«Maistraren irribarreak, eztitasunez askatu zuen emeki-emeki mesprezuaren tortika nire larruazaletik, eta bidea zabaldu zidan.»	(27)
txatxu 'ziztrina, eskasa'	«...neguan hotza pasatzen genuen, eta udan beroa, uralitazko estalpe txatxu haren azpian.»	(68)
txerpolari 'zirkoko artista, titiriteroa'	«Daten zehaztasuna barregarria da (...) hedatuz eta estutuz, txerpolari baten antzera itzulipurdika dabilen bitartean...»	(212)
txilin egin 'erakarri'	«—Eta zuk, Maria? —zirikatu zuen behin Idoiak—. Ez al duzu lagunik bilatu behar? Ez al dizu inork txilin egin ?»	(137)
txokolateki 'txokolatina, puska'	«Oso modu xumean egin zuten agurra, txokolateki batzuekin eta pasta batzuekin...»	(211)
txolarre 'artaxoria, kaleetako txoria'	«...eta hor doa Delfoseko tenplura, eskuan txolarre bat hartuta...»	(44)
txora-txora eginda egon 'zeharo gustatuta, lelotuta'	«...Marisaz txora-txora eginda nengoen , eta bera ere bai nitaz. Amodio-poemak idazten nituen...»	(75)
txutxumutxuzale 'ahapeka edozer kontatzen aritu'	«Idoiarekin isiltasuna partekatzea, hain txutxumutxuzale izanik bera, azkenean bion arteko bizikizun zoragarri bihurtu genuen...»	(170)
uhandituta 'uriolak, ibaia ur handiarekin'	«...ibaira erori, eta, adar bati heldu izan ez balio, urak eramango zuela, uhandituta baitzetorren ibaia.»	(204)
ulertzero jarri 'interesatu'	«...belarri fina baitzuen, azkar jarri zen ahoskerarik aldrebesenak ere ulertzero , eta, azkenean, jende guztiarekin aise mintzatzeko gauza zen.»	(32)
utzi zaharra 'duela asko utzia, aspaldi utzia'	«Ez nintzen gehiago irten haiekin; eskola utzi zaharra ez zuten, eta Adelaren lepotik barreka ari ziren bihozgabe alaeak...»	(70)
uztartuta 'lotuta, bat eginda'	«...berekioia, haurrei hitz gozo bat esateko ezgauza... halako bidutzi bat emakume iraultzaile batekin harremanetan, Adelarekin uztartuta .»	(43)
xalotasun 'inozentzia, jarrera garbia'	«Erruki izpirik gabe, hauts bihurtu zuen Marrok nire xalotasun guztia.»	(10)
xelebre 'bitxia'	«...jarrera xelebre haietan harrapatzen ninduen, galtzontzilo hutsean, eta barre-karkaraka aldentzen zen korridorean barna.»	(67)
zahagi eginda egon 'mozkor-mozkorrik'	«—Ez zagok whiskirik! Zahagi eginda hago , Marro! Alde hemendik!»	(104)



zaildu 'gogortu, sendotu'	«Alabaina, lan gogor hark neu ere gogortu egin ninduen, zaildu .»	(68)
zanga-zanga edan 'tragoxka handiak eginez'	«...egarriak jota, zanga-zanga edaten nuen hartatik, nola mando urrundik etorriak.»	(169)
zangar 'zankarra, beheko hanka zatia'	«Marroren ahotsak sega batek bezala moztu zizkidan zangarrak ...»	(8)
zantzu 'aztarna, , seinalea, arrastoa'	«...Idoiaz neukan irudia, hain askea, batzuetan lotsagaldua ere ematerainokoa, ez zetorren bat jokabide jeloskor harekin, inoiz ez bainion maiterre- zantzurik nabaritu.»	(176)
zarta 'eskuan kolpetxo'	«—Krepeak egin ditut, perretxikoekin eta arrozarekin. (...) —Txit! — zarta eman zidan—. Ezta ukitu ere!»	(154)
zartailu 'zigorra, latigoa'	«...oraingoan bai, oraingoan garrasi egin zuen Joxe Marik, ustekabean zartailu batekin jo izan balute bezala...»	(13)
zelai 'leuna, aldapa gabea'	«...bihurgune itxi batek lotzen zuen bide hura beste bide zelai batekin, zeinak albo batean espaloia baitzeukan, lertxun-lerro luze eta guzti...»	(11)
zer suma 'ikusmiran, zeozer ikusi guran'	«Leiho batzuetan, pixka bat alboratuta ageri ziren errezelak; beste batzuetan, berriz, argi eta garbi ageri zen aurpegiren bat, zer suma .»	(52)
zirimola 'zurrumbiloa, haizea bueltaka'	«Erortze lasterraren zirimolak inguraturik, hegan ote nindoan lilura sentitu nuen une batez...»	(8)
zirimolatsu 'zurrumbilo baten antzekoa'	«Idoiak atera ninduen hartatik, eta haizemaile baten ahurra bezala zabaldu zidan bizitza. Idoia zirimolatsu samarra zen, eta alde asko zituen...»	(139)
zirkinik ez 'mugimendu txikiena ere ez'	«...begi-zuloak izuaren izuz ia husturik baneuzkan ere, Marrok ez zuen zirkinik egin erruki apur bat bederen erakusteko.»	(8)
zirtoka 'ateraldi edo erantzun bizia'	«ORTko burua eta OICko idiskoa eztabaidan ari ziren, elkarri zirika eta zirtoka .»	(149)
zoroak jota egon 'eroturik, ganbara pitzatua eduki'	« Zoroak jota zaude , inondik ere, baina zeure zoroan egia handi bat diozu: zertarako ditugu utopiak oro...»	(87)
zurrun 'gogortuta, tentsioan'	«Ahoa estali nion, ama gehiago aztora ez zezan, eta gelara eraman nuen, baina atean zurrun gelditu nintzen...»	(137)